

**INDUSTRI, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA**

IRAGARPENA, Industri, Energi eta Meategien Administrazioarako Zuzendaritzako Bulegoko buruarena, erregai gaseosen zerbitzu publikoa egiteko administrazio-emakida baten eskabidea jendaurrean jartzeari buruzkoa. Zerbitzua Elciegoko (Araba) etxebizitzak, merkataritza-lekuak eta industriak kanalizatutako gas propanoz (G.L.P.) hornitzea eta gai hori banatzea da. Eskatzailea Repsol Butano S.A. da. 17308

IRAGARPENA, 1998ko irailaren 1ekoa, Industri, Energi eta Meategien Administrazioarako Zuzendaritzako Bulegoko buruarena, Arrazua-Ubarrundia Udalerrian Eskalmendiko Mintegieto z.t.-ra doan 30 kV-ko aireko linea elektrikoa, zirkuitu bikoitzekoa, jendaurrean jartzeko dena. 17309

**OSASUN SAILA**

IRAGARPENA, farmazi bulego bat eskualdatzeko baldintzak jakinarazten dituena. 17312

**Xedapen Orokorrak****HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
ETA JUSTIZIA, EKONOMI,  
LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA****Zk-4210**

222/1998 DEKRETUA, irailaren 8koa, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua sortu eta arautu zuen Dekretua aldatzeko dena.

Otsailaren 22ko 100/1994 Dekretuak Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua sortu eta arautu zuen. Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Legearen arabera, ordezkotzarik handiena ez izan arren, ordezkotza duten sindikatuen ordezkotzaren falta nabaritu da ordutik hona. Hori sindikatuen ordezkotzaren alorreko hutsegitea da eta partaidetza soziala indargabetu egiten du. Horregatik, sindikatuak leku utzi behar zaie bai kontseiluko osoko bilkuran bai batzorde iraunkorrean.

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
AGRICULTURA Y PESCA**

ANUNCIO de la Jefa de Oficina de la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas, por el que se somete a información pública la solicitud de Concesión Administrativa para la prestación del Servicio Público de Combustibles Gaseosos en la actividad de suministro y distribución de gas propano canalizado (G.L.P.) para usos domésticos, comerciales e industriales, en Elciego (Álava), realizada a instancia de Repsol Butano, S.A. 17308

ANUNCIO de 1 de setiembre de 1998, de la Jefa de la Oficina Territorial en Álava, de la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas, por el que se somete a información pública la línea eléctrica aérea doble circuito a 30 kV. al c.t. Viveros de Escalmendi, en el término municipal de Arrazua Ubarrundia. 17309

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

ANUNCIO por el que se hacen públicas las condiciones de la transmisión de una oficina de farmacia. 17312

**Disposiciones Generales****DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
ECONOMÍA, TRABAJO  
Y SEGURIDAD SOCIAL****Nº-4210**

DECRETO 222/1998, de 8 de septiembre, por el que se modifica el Decreto que crea y regula el Consejo Vasco de Formación Profesional.

El Decreto 100/1994, de 22 de febrero, estableció el Consejo Vasco de Formación Profesional y su regulación, el transcurso del tiempo ha permitido observar, de una parte, una falta de representación respecto de las organizaciones sindicales que, no ostentando la condición de más representativas, sí ostentan la condición de representativas conforme a la Ley 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical, suponiendo un defecto de la representación sindical que desvirtúa la participación social en el Consejo Vasco de Formación Profesional, debiendo dar cabida a éstas tanto en el Pleno del mismo como en su Comisión Permanente.

Bestalde, kontseiluko kideak zenbat urtetan egongo diren ere finkatu gabe geratu zela ikusi da. Horregatik, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkotza-aldi batzuk ezartzea beharrezkoa da.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**Lehenengo atala.**— 7. ataleko 1.c) idazatia aldatzea. Honela geratu da:

«Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkotza eta ordezkotzarik handiena duten sindikatueta-ko zazpi ordezkari; horietako organo eskumendunek izendatuko dituzte, ordezkotza-mailarekin proportzioan.»

**Bigarren atala.**— 7 bis atala gehitzea. Honela geratu da:

«7. atala. bis.3. - Iraupena.

1.— Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluko kideak lau urterako izendatuko dira; berriz ere aukeratu ahalko dira.

2.— Hala ere, erakundeek, Enpresarien Euskal Konfederakundeak, sindikatuak eta zentroetako titularrek titular edo ordezkotza izendatu zituzten pertsonak ordeztu ahal izango dituzte. Izendatutako pertsona aurrekoari geratzen zitzaion aldirako arituko da karguan, lau urteko epea —aurreko idazatian aipatu da— bete arte.

3.— Kontsiluko kideak dekretu hau indarrean jartzen denan izendatuko dira.»

**Hirugarren atala.**— 9. ataleko 3.b), 3.c) eta 3.d) idazatiak aldatzea. Honela geratu dira:

«3.b) Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomi eta Foru Administrazioako bost ordezkari. Dekretu honetako 7. ataleko 1.a) idazatian ezarritakoen artean aukeratuko dira, banaketa honen arabera: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik bat; Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailetik bi; Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailetik bat eta Kontseiluan foru aldundietako ordezkari dena.

3.c) Enpresarien Euskal Konfederakundeoko bost ordezkari. Dekretu honetako 7. ataleko 1.c) idazatian ezarritakoen artean aukeratuko dira.

Por otra parte, también se ha observado que no estaba establecido el tiempo para el que son nombrados los consejeros del mismo, siendo necesario establecer unos periodos de representación en dicho Consejo Vasco de Formación Profesional.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Educación, Universidades e Investigación y de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 8 de septiembre de 1998.

DISPONGO:

**Artículo primero.**— Se modifica el apartado 1.c) del artículo 7 que queda redactado de la siguiente forma:

«Siete representantes de las organizaciones sindicales representativas y más representativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, nombrados por sus órganos competentes en proporción a su representatividad.»

**Artículo segundo.**— Se añade el artículo 7 bis que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 7. bis. 3. - Duración.

1.— Los consejeros del Consejo Vasco de Formación Profesional serán nombrados por periodos de cuatro años, sin perjuicio de su reelección.

2.— No obstante, las Instituciones, Confederación Empresarial Vasca, Organizaciones Sindicales y titulares de los centros podrán sustituir las personas que hubieran nombrado como miembros titulares o suplentes. La persona designada permanecerá en el cargo el tiempo que restara a quien sustituya, hasta el cumplimiento del plazo de cuatro años citado en el párrafo anterior.

3.— Se procederá al nombramiento de los consejeros a la entrada en vigor del presente Decreto.»

**Artículo tercero.**— Se modifican los apartados 3.b), 3.c) y 3.d) del artículo 9 que quedan redactados de la siguiente forma:

«3.b) Cinco representantes de la Administración Autónoma y Foral de la Comunidad Autónoma del País Vasco, designados de entre los establecidos en el apartado 1.a) del artículo 7 del presente Decreto, manteniendo la siguiente distribución: uno del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, dos del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, otro del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca y el representante de las Diputaciones Forales en el Consejo.

3.c) Cinco representantes de la Confederación Empresarial Vasca designados de entre los establecidos en el apartado 1.c) del artículo 7 del presente Decreto.

3.d) Sindikatuetako bost ordezkari. Dekretu honetako 7. ataleko 1.c) idazatian ezarritakoen artean aukeratuko dira, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluko Osoko Bilkuran duten partaidetzarekin proportzioan.»

#### GEHIGARRIZKO XEDAPEN BAKARRA

Gehigarritzko xedapen bakarra aldatu egin da. Honela geratu da:

«Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak bere antolamendu-araudia dekretu honetan ezarritakora egokitu beharko du.»

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko irailaren 8an.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa sailburua,  
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte  
Segurantzza sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

### HERRIZAINGO SAILA

#### Zk-4211

216/1998 DEKRETUA, abuztuaren 31koa, ikuskizun publikoak eta aisialdi-jardunak eskaini ohi dituzten lokalak eta instalazioak ikuskaketzeko eta horiei buruzko ziurtapenak egiteko plan orokorra onartzen duena.

Ikuskizun publiko eta aisialdi-jardunei buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legeko xedapen gehigarrietatik laugarrenean habilitazioa ematen zaio Eusko Jaurlaritzari honako honetarako, alegia, administrazio publikoak koordinatzeko hain zuzen, ikuskizun eta aisialdi-jardunen arloak zaintzeari dagokionetan.

Horretarako, ikuskizun publikoak eta aisialdi-jardunak eman ohi dituzten lokalen eta instalazioen ikuskaketei eta ziurtapenei buruzko plan orokor bat gertatu behar dela xedatzen da. Honako hauek zehaztu behar-

3.d) Cinco representantes de las Organizaciones Sindicales, designados de entre los establecidos en el apartado 1.c) del artículo 7 del presente Decreto, manteniendo la proporcionalidad con su participación en el Pleno del Consejo Vasco de Formación Profesional.»

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Se modifica la Disposición Adicional única que queda redactada de la siguiente forma:

«El Consejo Vasco de Formación Profesional adaptará su Reglamento de Organización a las previsiones de este Decreto.»

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de septiembre de 1998.

El Vicepresidente del Gobierno,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación,  
Universidades e Investigación,  
INAXIO OLIVERI ALBISU.

El Consejero de Justicia, Economía,  
Trabajo y Seguridad Social,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

### DEPARTAMENTO DE INTERIOR

#### Nº-4211

DECRETO 216/1998, de 31 de agosto, por el que se aprueba el Plan General de Inspecciones y Comprobaciones de los Locales e Instalaciones dedicados a espectáculos públicos y actividades recreativas.

La Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, en su Disposición Adicional cuarta, habilita al Gobierno Vasco para ejercer la coordinación de las distintas Administraciones públicas en materia de vigilancia de los espectáculos y actividades recreativas.

A tal fin, prevé la aprobación de un Plan General de Inspecciones y Comprobaciones de los locales e instalaciones dedicados a espectáculos públicos y actividades recreativas que fije los objetivos generales y priori-